

Arriaga Arriagan

Agus Perez

Egitarau hirukoitzak ekarri du Bilboko Arriaga antzokira Espainiako Dantza Konpainia Nazionalak, eta erdiko koreografiak Juan Crisostomo Arriaga (Bilbo, 1806 - Paris, 1826) izan du protagonista.

Emanaldia Nacho Duatoren Remansos piezarekin hasi da, hiru emakume eta gizon dantzariaren parte-hartzearekin. Denak agertu dira maillot beltzez jantzita, hankak eta gizonen kasuan besoak agerian, emakumeetan distira gorriekin eta gizon batzuetan berdeekin. Arrosa gorri batek

KRITIKA Dantza 'Compañia Nacional de Danza'

Konpainia: Espainiako Dantza Konpainia Nazionala. Lekua: Bilboko Arriaga antzokia. Eguna: Apirilaren 16.

presiditu du agertokia, eta atzeko aldean lauki bertikal handi bat kokatu da, nolabaiteko enigma eszenikoa sortuz. Enric Granados katalanaren (Lleida, 1867 - Man-

txako kanala, 1916) *Valses poéticos* eta herri-dantza batzuetarako doinuak batuz osatu zuen Duatok 1997ko pieza hura, eta koreografia oso zatikatua geratu zen, musika-pasarte laburren segida izatearen ondorioz. Bestetik, gaurko iluspegitik hartuta, deigarria egiten zaigu haren mekanizismo nabarmena eta une batek aurrera emakumeak eszenatik guztiz desagertu izana, hiru gizonak arkadia zoriontsu batean bezala jolasten aritzen zirela.

Arriaga deitu da bigarren ekitaldia, Bilboko konpositorearen omenez, eta, aurrekoan bezala, hainbat zati solte hartu dira koreografiaren soinua-bandatzat: Arriagaren hiru kuartetuetako atal batzuk eta beraien bariazioak, hain zuzen ere. Beraz, piezak ezinbestean edukitu izatera zati-

katua -aurreko atalaren izaera bera, zehatz esanda-, eta orain biolina, biola eta biolontxeloa Granadosen pianoaren ordezkatuak izan badira ere -bi musikariren arteko amildegia alde batera utzita-, monotonia sentsazio handia eman diote egitarautaren diseinuari. Gainera, hiru koreografok sinatu dute Arriaga hau, eta, horren ondorioz, emaitza eszenikoa solista eta bikoteen dantza-erakustaldi solia iruditu zaigu, distira berezirik gabea dantzari gehienei begira, eta batez ere asmo handirik gabea proiektu koreografikoari dagokionez.

Arratsaldeko azken koreografia Antonio Ruzen *In paradisum* izan da, eta honetan aurrekoaren jantzi monokromo itxuragabeak atzean utzi eta kaleko arropa koloretuekin agertu dira dantza-


riak. Ruz Espainiako Dantza Sari Nazionala izan zen 2018an, eta berak sinatutako azken atal honetan Pizkunde aroko musika liturgikoak girotu ditu eszena batzuk. Haien artean soinua ilunek, heavy pasarteak, jazzik abstraktuena eta techno musika tartekatuta dira, dantzariak taide jarrera mistikoak eta abladura geldoko konposizio epikoak osatzen zituzten bitartean. Luzimendu pertsonalerako eszenaren bat ere egon da -zilarrezko bainujantziarena nagusi- eta behin baino gehiagotan mugimendu-teatro-tik hurbilago ibili da proposamena benetako dantziatik baino. Esandako horrek eta, oro har, piezaren efektismoak eta talde-inprobisazioetatik sortutako pasarte batzuek zertxobait apaldu dute amaierako piezaren distira.

berria denda

EMAN ZESARRI ZESARRENA

Biolentziaren inguruko "errelatuaz" zenbait liburutzia

Joxe Iriarte, Bikila



BERRIAren eta
Intxorta 1937
kultur elkartearen
eskutik

10€

b/ 8,50€

Eman Zesarri Zesarrena

Egilea: Joxe Iriarte, Bikila

Liburuaren kezka nagusia azterketa historikoa da. Ibilbide politiko bat egiten du garaz garaik, estrategiaz estrategia, ETAk ze ibilbide egin duen eta bera non kokatu den ibilbide eta estrategia horietan.

Beraz bada, zentzurik onenean, bizitzako zikloaren amaleran militante batek atzera begira egiten duen azterketa bat beti garrantzitsutzat jo duen gai baten inguruan. Eta, ordea, testuak badu gaitasuna maila teorikoan nazioartean (Lasalle, Marx, Weber, Engels, Fernandez Uria, Freud, Bensaïd) eta gurean (Joxe Azurmendi, Emilio Lopez Adan, Jule Goikoetxea, Markos Zaplain, Pili Zabela, Andoni Olariaga, Joseba Sarriena) indarkeriaz egin diren azterketak integrazteko. Berdin aurkituko duzu hemen Euskal Herriko eta Espainiako geografia ala Latinoamerikakoa eta Ekialde Hurbilekoa.



Anda eta Viñaspre, larunbatean, Izarran. ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEA

Viñaspre-Anda eta Abarategi-Agirre Arabako Binakakoaren lehen sailkatuak

BERTSOLARITZA • Asteburuan jokatu dira Arabako Binakako Bertsolari Txapelketaren lehenengo bi final-laurdenak, eta Viñaspre-Anda eta Abarategi-Agirre bikoteak nagusitu dira bi saioetan. Datorren larunbatean, Oionen, erabakiko da zein sei bikote jokatuiko dituzten finalerdietan: hiru bikote irabazleak zuzenean joango dira finalerdietara, eta beste hirurak puntuazioaren hurrenkeran erabakiko dira.

Bilboko Arriaga antzokian banatuko dira aurtengo arte eszenikoen Max sariak

ARTE ESZENIKOAK • Bilboko Arriaga antzokiak hirugarren hartuko du arte eszenikoen Max Espainiako sariaren ekitaldia. Sariaketaren 24. aldia izango da aurtengoa, eta Calixto Bieito Arriagako zuzendari artistikoak zuzenduko du gala -2006an ere zuzendu zuen-. Urriaren 4an egingo da ekitaldia. Aurrez, 2001ean eta 2007an ere Bilbon banatu ziren antzerkiko eta dantzako profesionalen zuzendutako sariak.

107

MUSIKA BULEGOA SARIA JASOTZEKO HAUTAGAIK

Euskal Herriko Musika Bulegoa Elkarteak bosgarren urtez banatuko ditu sariak aurtén. Guztira, hamar sari banatuko dira, sortzaile, interprete, konpositore, bakarlari eta taldeen artean. Sari emate ekitaldia heldu den maiatzaren 19an izango da, Miarritzeko Atabal aretoan.

943-30 43 45
Berria.gus/berriarriaga/denda

BERRIAguna bazara, egin eskerria
eta etxera bidalko dizugu

berria
Liburuaren
zenbait kate duen